



ARANTZako UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
© 948 634 005
☎ 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

2017KO UZTAILAREN 5EKO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.
Batzarra: Ohiko bilera.
Deialdia: Lehenengoa.
Eguna: 2017.07.05.
Ordua: Arratsaldeko 19:00etan.
Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.
Zinegotziak:
Mentxu Peña Lizarazu and.
Ander Almandoz Indakoetxea jn.
Igor Ugalde Salazar jn.
Juan M. Gonzalez Burguete jn.
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.
Iñigo Sarrias Zoco jn.

Bertaratu ez direnak:

Inor ere ez.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

- 1.-Azkeneko aktaren onespena.
- 2.-Alkatearen aldaketa.
- 3.-Mendiko lanen esleipena.
- 4.-Eskolako obrak.
- 5.-Altsasuko Udalak igorritako mozioaren onespena.
- 6.-Udal autonomiaren aldeko manifestua.
- 7.-Erreniegako hilobien proiektua.
- 8.-Hatortxu festibala babesteko proposamena..
- 9.-Trenaren aldeko eta ATHaren aurkako hautetsien sarearen adierazpena.
- 10.-2017ko aurrekontuaren aldaketa: hasierako onespena.
- 11.-Alkatearen ebazpenak.
- 12.-Eskaerak eta galderak.

1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.

2017ko ekainaren 1ean egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE, aldaketa honekin: 3. puntuko edukian (4. poligonoko 105 B. lurzatian eta baja 4. poligonoko 84. lurzatian) ez da zuzena, 3. poligonoko da eta.

2.-ALKATEAREN ALDAKETA.

2.1.-Irakurri da Juan Miguel Almandoz Mitxelena jaunak aurkeztutako idatzia alkatearen kargura dela eta.

Bertan alkate kargua uzteko asmoa agertzen du, beti ere, zinegotzi bezala jarraituz.

Udalbatzak horren berri hartu eta jakinaren gainean gelditu da.

2.2.- Ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 196. artikuluari jarraiturik, udal-hauteskundeetan gehien bozkatutako zerrendako burua den zinegotzia izango da alkate eta honek uzten duenean zerrendako ondorengoa izanen da.

Azkeneko hauteskundeetan aurkeztutako zerrenda bakarra hauek osatzen zuten:

Hona hemen zinegotzien zerrenda:

-Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.

-M.Carmen Peña Lizarazu and.

-Ander Almandoz Indakoetxea jn.

-Igor Ugalde Salazar jn.

-Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.

-Juan M. Gonzalez Burguete jn.

-Iñigo Sarrias Zoco jn.

Ondorioz, Mentxu Peña Lizarazu andrea da hurrengoa. Metxu Peña Lizarazu prest agertu da kargua hartzeko eta kargua hartu du. Halaber, hitz eman du, legeak behartuta, alkate karguaren betebeharrak erregearikiko leialtasunez zintzo beteko duela eta Estatuaren funtsezko araua den konstituzioa bete eta betearaziko duela .

3.-MENDIKO LANEN ESLEIPENA.

3.1.- Arantzako Udalak hainbat mendiko lanak egin nahi ditu Basarte S.L. enpresak egindako proiektuaren arabera, zerrakura biltzea, bertzeak bertze.

Lan horien aurrekontua 15.189,06 euroko da, BEZ barne.

Gonbidapenak bidali dira Pello Aginaga Macicior, Javier Alzugaray S.L.U. eskabazioak, Mikel Telletxea Juanena, Miguel Angel Oyarzabal Tellechea, Jesus Maria Madariaga Vergara, Iñaki Taberna Iturria eta Berdabio Basogintza S.L. enpresei.

Ikusirik gonbidatu eta aurkeztutako enpresen proposamenak:

-Mikel Telletxea Juanena: 9.300,00 euro, BEZ barne.

-Berdabio Basogintza S.L.: 14.429,00 euro, BEZ barne.

-Miguel Angel Oyarzabal Tellechea: 14.901,15 euro, BEZ barne.

Mikel Telletxea Juanena enpresaren proposamena % 38,8ko baja suposatzen du.

Kontratu publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeraren 91. artikulua arabera:

“Lizitazio prozedura batean kontratuko prestazioekin alderatuta baxuegia dirudien eskaintzaren bat aurkezten bada (kontratuaren balio zenbatetsia baino ehuneko hogeita hamar txikiagoa bada), itxura batean behar bezala bete ezin dena, administrazioak, eskaintza hori baztertu aurretik, jakinaren gainean jarriko ditu ukitutako lizitatzailerik guztiak, bost eguneko epean alegazioak aurkez ditzaten”.

Kontuan hartuz Udal honek 6/2006 Foru Legea aplikatzen duela eta ez duela kontratua arautzeko beste baldintzerik adierazi.

EBATZI DUT:

1) Mendiko azpiegituren lanak egiteko Mikel Telletxea Juanena enpresaren proposamena bertze enpresei jakinaraztea bost eguneko epea (2017ko uztailaren 14a arte) emanaz alegazioak egiteko.



ARANTZako UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
© 948 634 005
☎ 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

3.2.- Udal honek Basarte S.L. enpresak egindako proiektuan bildua diren hainbat pista (Bulatxiki, Argatasoro eta Senberroko Borda) moldatzeko lanak esleitzeko gonbidapenak igorri zituen Pello Aginaga Macicior, Javier Alzugaray S.L.U. eskabazioak, Mikel Telletxea Juanena, Miguel Angel Oyarzabal Tellechea, Jesus Maria Madariaga Vergara, Iñaki Taberna Iturria eta Berdabio Basogintza S.L. enpresei.

Lan horien aurrekontua 5.327,10 euroko da, BEZ barne.

Hauek izan dira aurkeztutako proposamenak:

- Iñaki Taberna Iturria: 4.457,64 euro, BEZ barne.
- Miguel Angel Oyarzabal Tellechea: 5.069,90 euro, BEZ barne.
- Mikel Telletxea Juanena: 4.327,00 euros, BEZ barne.
- Berdabio Basogintza S.L.: 5.060,00 euro, BEZ barne.
- Javier Alzugaray S.L.U.: 5.200,00 euro, BEZ barne.

Ah batez, ERABAKI DUTE:

1) Mikel Telletxea Juanena enpresari aipatutako bideak moldatzeko lanak esleitzea, 4.327,00 eurotan, BEZ barne, beti ere aurkeztutako bere proposamena eta Basarte S.L. enpresak egindako proiektuaren arabera, proposamen merkeena delakoz.

2) Mikel Telletxea Juanena enpresari jakinaraztea lehentasuna emanen zaiola ehiza kotoari ukitzen dituen pistei eta eskatzea hauetan hasia lanak.

3) Halaber jakinaraztea obrak 2017ko irailaren 30erako eginak egon behar dutela.

4) Ebazpen hau enpresa guztiei jakinaraztea.

4.-ESKOLAKO OBRAK.

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko Unibertsitateen eta Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiak emandako ekainaren 16ko 526/2017 ebazpenaren bidez, diru laguntza eman dio Udal honi eskolan hainbat obra egiteko: kalefakzioko kaldera aldatzeko eta ikasleen segurtasuna eta babesa hobetzeko.

Kontuan hartuz eskola itxia dagoenean egin nahi direla obrak.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Kalefazioko kaldera aldatzeko obrak esleitzeko administrazio-klausula partikularren plegua onartzea eta gonbidapena igortzea proposamenak aurkezteko 2017ko uztailaren 20rako ondorengo enpresei: Goienburu Iturgintza, Peio Aguinaga Macicior, Patxi Mutuberria Iturria, Frolin, Tinka Energiak S.L. eta Efectivia S.L.

2) Segurtasun eta babesa hobetzeko lanak egiteko gonbidapena igortzea proposamenak 2017ko uztailaren 20rako ondorengo enpresei: Olazar aroztegia, Korta Anaiak aroztegia eta Joisa aroztegia.

5.-ALTSASUKO UDALAK IGORRITAKO MOZIOAREN ONESPENA.

Ikusirik Altsasuko Udalak igorritako mozioa, Bardeako eremuari buruz.

Ikusirik mozioa erdara hutsez igorri dutela.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Aipatutako mozioa euskaraz ere igortzea eskatzea.

6.-UDAL AUTONOMIAREN ALDEKO MANIFESTUA.

Ikusirik Nafarroako Errepublikako ezkertiar Juntak igorritako manifestua, epaitegira eramateagatik hainbat udaletako balkoietan errerepublikako bandera jartzeagatik.

Ikusirik manifestua erdara hutsez igorri dutela.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Aipatutako manifestua euskaraz ere igortzea eskatzea.

7.-ERRENIEGAKO HILOBIEN PROIEKTUA.

Ikusirik Erriberriko elkarte batek igorritako idatzia (Undioko Kontzejuak hartutako akordioarekin batera), Erreniegako mendi lerroan erail zituzten 80 pertsoneri buruz. Bertan, erreparazio eta errekonozimendua ematea eskatzen da eta hainbat harriz osaturiko gune bat eta monolito bat egiteko diru laguntza eskatu ere.

Kontuan hartuz 2017ko aurrekontuan Udal honek ez duela partidarik.

Kontuan hartuz Udalak dituen lehentasun eta beharrak.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Erail zituzten 80 pertsoneri erreparazioa eta errekonozimendua aitortzea.

2) Aipatutako elkarteari diru laguntzik ez ematea, Udalak bertze lehentasunak dituelakoz eta aipatutako arrazoiengatik.

8.-HATORTXU FESTIBALA BABESTEKO PROPOSAMENA.

Ikusirik Aztibegia elkarteak aurkeztutako idatzia, 2017ko hatortxu Rock Festibala antolatzeke diru laguntza eskatuz, info7 Irratian zuzeneko irratsaioan babesle izanez..

Kontuan hartuz 2017ko aurrekontuan Udal honek ez duela partidarik.

Kontuan hartuz Udalak dituen lehentasun eta beharrak.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Hatortxu Festibalarari diru laguntzik ez ematea, Udalak bertze lehentasunak dituelakoz eta aipatutako arrazoiengatik.

9.-TRENAREN ALDEKO ETA AHTAREN AURKAKO HAUTETSIEEN SAREAREN ADIERAZPENA.

Ikusirik Nafarroako trenaren alde eta Abiadura Handiko Trenaren aurkako hautetsien sareak igorritako adierazpena.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) AHTaren proiektua egiteko jarraitu den prozedura salatzea, informazio gardentasun eta parte-hartze publiko gabeziek bultzatua baita.

2) AHTa errefusatzea, proiektu antisoziala, ekologiaren aurkakoa, baliabideak xahutzen dituena eta bere nekazal eta lurralde inpaktu zein inpaktu fisiko, sozial eta ekonomikoak direla eta, jasanezina delako. Horretaz gain, erregimen zaharraren proiektua da, Aldaketaren Gobernuarekin bateraezina, alegia.

3) Inolako itunik sinatu baino lehen, Nafarroako Gobernuari bere ahaleginak aditu eta eragile sozialek osaturiko Garraioaren Behatokia sortzeari begira bidera ditzan eskatzea, gaia ingurune-iraunkortasun, zein jasangarritasun sozial eta ekonomiko irizpideei jarraiki ikertzeko, eta ondorioak nafar gizarteak berretsiko ditu herri-galdeketa bidez.

10.-2017KO AURREKONTUAREN ALDAKETA: HASIERAKO ONESPENA.

Nafarroako Gobernuak diru laguntza eman du Arantzako eskola publikoan lanak egiteko.

Kontuan hartuz sartutako partida ez dela nahiko lan guztiak burutzeko.

Kontuan hartuz 2016ko kontuan itxi ondoren izandako soberakina.



ARANTZako UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
© 948 634 005
☎ 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontuen eta gastu publikoaren alorretan garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuaren 33. artikuluan xedatuari jarraikiz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) 2017ko aurrekontuaren 2. aldaketa egiteko espedientea hasiera batean onestea.
- 2) Espedientea Idazkaritzan jartzea ikusgai hamabortz egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, bizilagun edo interesdunek azter dezaten eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten.

11.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du, 2017ko 71. ebazpenetik 85. ebazpena arte.

12.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egin.

Bertzerik gabe, gaueko 22:00ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAk,
Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.

O.E. ALKATEAk,
Mentxu Peña Lizarazu and.



